



# GUREAN BAI-Ostalaritza

Elgoibarko taberna eta jatetxeetan  
euskararen erabilera gehitzeko  
**HITZARMEN-PROIEKTUA**

# AURKIBIDEA

1. Sarrera
2. Lan esparrua
3. Helburuak
  - 3.1. Erabilera
  - 3.2. Ezagutza
  - 3.3. Motibazioa
4. Lan faseak
  - 4.1. Aurrelanak
  - 4.2. Diagnosia eta mikroplangintzak
  - 4.3. Inplementazioa
    - 4.3.1. *Erabilera* bultzatzeko ekintzak
    - 4.3.2. *Ezagutza* bultzatzeko ekintzak
    - 4.3.3. *Motibazioa* bultzatzeko ekintzak
  - 4.4. Jarraipena
  - 4.5. Ebaluazioa
5. Bitartekoak
  - 5.1. Bitarteko pertsonalak
  - 5.2. Bitarteko materialak
6. Zerbitzuak
7. Kronograma

## 1. SARRERA

Badira 10 urte GUREAN BAI Hitzarmena martxan jarri genuela. Elkarte eta erakundeekin hasi ginen lanean eta denda edo saltokiekin gero. 2006a inflexio puntu bat izan zen. Elgoibarko merkataritzan euskararen erabilera indartzeko proiektuaren 1. fasearen (2003-2005) balorazioa egitea eta sektore horrekin lanean jarraitu edo ez erabakitzea zegokigun. Faktore ezberdinak aztertu ostean, 2 ondoriotara iritsi ginen: Alde batetik, dendariekin jarraitu behar genuela konturatu ginen. Horretarako beste hiru urterako konpromisoak berritu eta bere garaian parte hartu ez zutenei hitzarmen-proiektua aurkeztu eta parte hartzera gonbidatu genien. Bestalde, alor berri bati ekiteko beharra ere ikusi genuenez, merkataritzako 2 azpisektoreen egoera eta lan aukerak aztertu eta baloratu genituen: zerbitzu bulegoak eta ostalaritza. 9 elkarrizketa egin eta gero, lan aukera gehien ostalaritzak eskaintzen zituela ikusi genuen. Gainera, elkarrizketatuek jarrera positiboa erakutsi zuten.

Ostalaritzan hizkuntza egoera aldekoa izango ez zela sumatu genuen, baina lanerako aukerak eta borondatea bazegoen. Kuantitatiboki sektore hain garrantzitsua ez bada ere (56 establezimendu daude), kualitatiboki alor inportantea da, ostalariak elgoibartar askorekin eta adin-talde ezberdinetako pertsonekin harreman zuzena dutelako eguneroko bizitzan, eta gainera, gazteen presentzia garrantzitsua delako. Beraz, ostalariak euskararen erabilera bultzatzeko agente garrantzitsuak dira, herriko bizitzan duten eraginagatik. Guzti honengatik, 2007an Elgoibarko taberna eta jatetxeetan euskararen aldeko hitzarmen-proiektua martxan jartzea erabaki genuen Udalak eta Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak.

Proiektua borondatezkoa, doakoa, irekia eta elkarlanean oinarritutakoa izango da:

- Borondatezkoa, nahi duenak bakarrik parte hartuko duelako, eta borondatez hartzen diren konpromisoetan oinarritzen delako.
- Doakoa, ostalariak ez duelako ezer ordaindu behar.
- Irekia, zabalik dagoelako sartzeko borondatea erakusten duten taberna eta jatetxe guztientzat.

- Elkarlanean oinarritutakoa, eragile guztien parte hartzearekin gauzatuko delako.

## 2. LAN ESPARRUA

Hitzarmen-proiektua, Elgoibarko taberna eta jatetxe guztietan aplikatuko da, herrian bertan zein auzoetan daudenak. Kuantitatiboki ez da sektorerik garrantzitsuena, 56 establezimendu daudelako. Kualitatiboki aldiz bai, herritar askorekin eta adin-talde ezberdinekin lotura duelako.

<b>GUZTIRA 56</b>	
<b>Tabernak</b> <b>37</b>	Tabernak (36)
	Taberna-Pizzeria (1)
<b>Jatetxeak</b> <b>15</b>	Jatetxeak (6)
	Erretegiak (3)
	Jatetxe-Ostatua (1)
	Jatetxe-Tabernak (5)
<b>Hotelak</b>	
<b>1</b>	
<b>Pizzeriak</b>	
<b>1</b>	
<b>Dantzalekuak</b>	
<b>1</b>	
<b>Hamburger jatetxeak</b>	
<b>1</b>	

Proiektuaren lehen faseak 3 urteko iraupena izango du (2007-2009). 2009an, 1.fasea amaitzen denean, balorazio sakona egingo genuke proiektuarekin jarraitu edo ez erabakitzeko.

### 3. HELBURUAK

Helburu orokorra, Elgoibarko taberna eta jatetxeetan euskararen erabilera areagotzea da, bai ahoz eta bai idatziz; bai barrura begira eta bai kanpora begira egiten diren jardueretan.

Helburu espezifikoak, hizkuntzaren normalizazioan eragiten duten 3 faktoreen arabera antolatuko ditugu, eta diagnosia egin ostean zehaztuko ditugu helburuak betetzeko aurrera eramango ditugun ekintzak.

#### 3.1. ERABILERA

Hauxe da hizkuntzaren erabileran eragiten duen faktore nagusia, abiapuntua eta helburua. Baina, jendeak euskara erabil dezan, euskara ikastera bultzatu eta euskaldunak euskara erabil dezaten motibatu beharko ditugu. Helburu nagusia honako atal hauetan euskararen erabilera areagotzea litzateke.

- Kanpo-harremanei dagokionez;
  - Irudia (errotulu nagusia, errotulu estandarrak, oharrak, ...)
  - Ahoz (harrera hizkuntza, telefonoz, bezeroekin, hornitzaileekin, ...)
  - Idatziz (publizitatea, fakturak, prezio-zerrenda, bisita-txartela, ...)
  - Informatika (web gunea, emailak, ...)
  
- Barne-harremanei dagokionez;
  - Irudia (eskaera-oharrak, ...)
  - Ahoz (nagusiarekin, langileen artean, lan bileretan, ...)
  - Idatziz (barne-oharrak, nominak, estatutuak, lan egutegia, ...)

### 3.2. EZAGUTZA

Helburu nagusia ostalari euskaldunen kopurua handitzea litzateke. Euskaraz ez dakienak ezin du hitz egin eta euskararen ezagutza txikia delako susmoa daukagu. Hipotesi horretatik abiatuta, esfortzua 2 norabidetan egin beharko da:

- Euskaraz ez dakiten ostalariei begira.
- Euskara dakiten ostalariei begira.

### 3.3. MOTIBAZIOA

Aspaldi dakigu euskara jakiteak ez duela erabilera bermatzen. Horregatik, motibazioa lantzea oso inportantea da, jarrerak eta autoinplikazioa euskararen erabilerarako giltzarri baitira. Honako arlo hauei begira landu behar da motibazioa:

- **Ostalariei begira**
  - Hitzarmena sinatu eta konpromisoak betetzeko
- **Bezeroei begira**
  - Euskaraz eskatzera bultzatzeko
- **Herritarrei begira**
  - Proiektuarekiko jarrera positiboa izateko

## 4. LAN FASEAK

### 4.1. AURRELANAK

Lan metodologia eta proiektuaren ardura eta funtzioak zehazteko fasea litzateke. Behin proiektuaren bizkarrezurra prest dagoenean, honako urratsak emango dira:

- **Kontraste taldeari aurkeztu:** Proiektuaren arduradun eta eragileak diren Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteari eta Udaleko Euskara Batzordeari. Hauen ekarpenekin osatuko dugu behin-behineko proiektua, ostalariei aurkeztuko zaiena, alegia.
- **Ostalariei:** Ostalari guztiei eskutitz bat bidaliko zaie eragileen izenean eta ondoren telefonoz deituko zaie proiektua azaltzeko bilera eguna eta ordua zehazteko. Proiektua aurkezteaz gain, hainbat datu jasoko dira, Elgoibarko ostalaritzaren egoeraren argazki orokor bat izateko asmoz. Proiektuaren ildo nagusiak ahoz azalduko bazaizkie ere, parte hartzeak suposatzen dituen abantailen eta zerbitzuen katalogoa emango diegu. Hamabost eguneko epean proiektuarekiko duten iritzia, zalantzak eta ekarpenak jasoko dira. Jarrera positiboa erakutsi eta proiektuan parte hartuko luketen ostalarien datuak jasoko dira, euskara arduraduna izan edo ez. Ondoren, behin betiko proiektua egingo genuke.
- **Herritarrei** planaren berri emateko **aurkezpen publikoa** egingo dugu eta proiektuaren helburuekin bat dauden establezimenduek **hitzarmen orokorra** sinatuko dute.

## 4.2. DIAGNOSIA ETA MIKROPLANGINTZAK

Hitzarmen orokorra sinatzen duten ostalariekin, bere taberna edo jatetxeak duen hizkuntza egoera zein den aztertuko dute teknikariak eta ostalariak elkarrekin. Honek, banakako hitzarmen espezifikoak egiteko eta Elgoibarko ostalaritzaren egoera ezagutzeko balioko digu.

Diagnostikoa ahalik eta zehatzena izateko lortu behar den informazioa biltzeko honako teknikak erabiliko dira:

TEKNIKA	INFORMAZIO ITURRIA	INFORMAZIO MOTA
Behaketa	Harrera, errotuluak eta oharrak	Hizkuntza paisaia eta harrera hizkuntza nolakoa den ezagutzeko.
Inkesta	Arduraduna(k)	Euskararen ezagutza, erabilera eta motibazioa.
Elkarrizketa	Arduraduna	Bakoitzaren lan eginkizunak, kanpoko eta barneko harremanak, euskararen egoera orokorra, iritzia, ...

Guztien egoera jasotzeak luze joko duenez, hitzarmen espezifikoak egin bitartean itzulpen zerbitzua eskainiko zaie.

Behin jatetxe eta taberna bakoitzaren hizkuntza egoera zein den ezagututa, helburu lorgarriak proposatuko zaizkio bakoitzari eta ostalariak erabakiko du zein konpromiso hartu. Hartzen dituzten konpromisoak, hitzarmen espezifikoan jasoko dira eta horiek betetzeko behar duten laguntza eskainiko zaie.

## 4.3. INPLEMENTAZIOA

Zehaztutako helburuak betetzeko aurrera eramango ditugun ekintzak zehaztu behar dira, ondoren hauen jarraipena egin eta emaitzak ebaluatzeko.

Behin-betiko ekintzak diagnosia egiten dugunean definituko baditugu ere, ekintza posible batzuk zerrendatzea garrantzitsua da. Ekintzak, helburuak bezala, Txepetxen hiru ardatzen arabera antolatuko ditugu:



#### **4.1.1. ERABILERA**

Ekintzak baino, materialak eskainiko genituzke:

- Identifikazio ezaugarriak: “Euskara ez daukazu saltzeko” edo antzeko lema batekin “euskara ahora” edalontzi edo platera tabernako toki ikusgarri baten jartzea eta “nahi badozu gurean euskaraz” euskarriak.
- Euskaraz dakiten langileak identifikatzeko pinak.
- Errotulu nagusia eta aplikazio informatikoa euskaraz jartzeko diru-laguntzak.
- Errotulu estandarrak: komunak, irteera, bultza, pribatua, ..
- Menua, salda, olagarroa,... badago kartelak.
- Jatetxeetako eskaera zerrendak.
- “Erre daiteke” eta “ezin da erre” kartelak.

#### **4.1.2. EZAGUTZA**

Bi ekintza ezberdin:

- Euskaraz ez dakiten ostalarientzako euskara ikastaroa antolatu eta parte hartzera animatzeko.
- Euskara dakiten ostalarien ahozko erabileran trebatu eta hizkuntza ohituran eragitea bultzatu beharko dugu. Beste ekintza posibleen artean TERTULIAK programaz baliatuko gara (bai ostalaria tertulia talde batean parte hartzera gonbidatuz, tertulia talde bat berak lan egiten duen taberna edo jatetxera bideratuz edo tabernariekin talde berezi bat sortuz).

#### **4.1.3. MOTIBAZIOA**

Motibazioari dagozkion helburuak lortzeko ekintza ezberdinak gauzatuko ditugu:

- o **Ostalariei begira**
  - Proiektua ilusioz aurkeztu.
  - Katalogoa eman, izango dituzten aukerak zeintzuk diren ikusi eta parte hartzera animatu daitezen.
  - Euskara ikastaroetan izena emateko kanpaina abiatu.
  - ...

- **Bezeroei begira**
  - Bezeroei begira lehiaketaren bat antolatu.
  - Egun bereziren bat antolatu euskara ardatz hartuta.
  - ...
- **Herritarrei begira**
  - Proiektuaren promozioa egin, herrian oihartzuna izan dezan.
  - ...

#### **4.4. JARRAIPENA**

Jarraipen fasea proiektua martxan jartzen denean abiatzen da, hartutako konpromisoak betetzen diren ikusteko. Horrela, egon litezkeen hutsunez jabetu ahal izango gara eta neurri zuzentzaileak proposatzeko aukera izango dugu.

Jarraipena zuzeneko bisiten bidez egingo da. Horrela, teknikariak zuzeneko behaketa, inkesta eta elkarrizketaren teknikak konbinatzeko aukera izango du. Bestalde, ostalarientzat teknikaria bertara joateak hurbiltasun sentimendua emango dio, behar den gutxieneko konfiantza bermatuz.

#### **4.5. EBALUAZIOA**

Ebaluazioak plangintza bide zuzenetik doan edo ez ikusteko balio du. Gauzatutako ekintzen balorazio edo hausnarketa egingo dugu, plana hasi zenetik emandako bilakaera ikusiko dugu urtero eta prozesu hori nolakoa izan den baloratuko dugu teknikariak eta ostalariak (parte hartzea, inplikazioa, konpromisoen betetze maila, zailtasunak, ...).

Urteroko balorazioez gain, planaren 3 urteak igaro ondoren, proiektuaren ebaluazio sakona egingo genuke eragile guztiok. Honek, proiektuak eman duena ikusteko eta aurrera begirako helburuak zehazteko balioko digu.

## **5. BITARTEKOAK**

### **5.1. BITARTEKO PERTSONALAK**

Elgoibarko Izarra Kultur Elkartek jarriko du, egun osoko dedikazioa izango duen teknikari profesional bat proiektu honi eragiteko ardurarekin. Alderdi soziolinguistikoaren ardura izango du eta honako funtzioak izango ditu, besteak beste:

- Proiektua dinamizatu.
- Bi hiletik behin ohiko batzarren bidez proiektuaren jarraipena egin.
- Urteko lan plangintza diseinatu.
- Urteko programaren ardura izan.
- Ostalariei konpromisoak gauzatzeko laguntza eskaini (zerbitzuak).
- Itzulpenak egin.
- Ostalariak motibatu.

Elgoibarko Udaleko euskara teknikariak ere proiektuari bere jardunaren zati bat eskainiko dio honako lanetan:

- Behar diren baliabide eta diru laguntzak lortu.
- Bi hiletik behin ohiko batzarren bidez proiektuaren jarraipena egin.
- Teknikariari laguntza eskaini.
- Udal ordezkariak informatuta izan.

### **5.2. BITARTEKO MATERIALAK**

Elgoibarko Udala arduratuko da proiektuaren finantziazioaz. Udalak 3 urteko proiektua aurrera eramateko urtero hitzarmenetan zehaztuko den diru-laguntza emango dio.

Elgoibarko Izarra Kultur Elkartek jarriko du lanerako egoitza (bulegoa) eta behar diren baliabideak (lanerako mahaia, ordenagailua, ...).

## 6. ZERBITZUAK

Ostalariei konpromisoak betetzen laguntzeko doaneko zerbitzu ezberdinak eskainiko zaizkie:

- **HIZKUNTZA ZERBITZUAK**
  - Hizkuntza aholkularitza
  - Itzulpenak
  - Zuzenketak
  - Testu-ereduak
  - Baliabide informatikoak
  
- **PRESTAKUNTZA**
  - Euskara ikastaro espezifikoak
  - Tertulia programa
  
- **DIRU-LAGUNTZAK**
  - Euskara ikasteko beka-sistema
  - Errotulua euskaratzeko
  - Kudeaketarako aplikazio informatikoa euskaraz jartzeko
  
- **MATERIALAK DOAN**
  - Kartel mutuak
  - Faktura liburuxkak
  - Euskarriak
  - Errotulu estandarrak
  - ...

